

Belokeko Beneditarrak

Desde el s. XI, la Familia benedictina tuvo una brillante historia en nuestra Edad Media; pero la Exclaustración del XIX la afectó profundamente. La Abadía de Beloke, en Ahurti/Urt (Lapurdi), ha sido monasterio pionero en la restauración posterior, desde 1875. Ella es la madre de lo que más tarde hemos conocido en Lazkao y a partir de 1963 en Estibalitz.

XI. mendeaz geroztik, tradizio eta bizimodu beneditarra nagusitu zen euskal monasterioetan, eta tradizio horrek orain arte iraun du gure artean, nahiz eta eten larririk ez den falta izan. Baina gatozen historia orokor horretatik Belokeko jakineko historia beneditarrera.

Augustin Bastres Abadea (1832-1904)

Frantziako Iraultza ondoren (1789...) gauzak berbideratu nahi izan zirenetik, Belokekesanahi berezia izan zuen, eta ez bakarrik Iparraldeko monasterio beneditar iraunkor bakarra izan delako.

Aita Augustin Bastres senperetarra da Belokeko Monasterioaren gurasoa. Iraultza-ondoko testuinguruan hartu zuen Seminariorako bidea Augustin gazteak (1844). Larresoroko Seminarioko umea dugu Aita Bastres, hain zuzen Iparraldean eta euskal kulturaren halako lorratza utzitako ikastetxekoa.

Hurrengo urratsa Baionako Seminario Handirako eman zuen Augustinek, hemezortzi urte zituela (1850). Frantziako Elizak, oro har, eta Baionako Diozesiak ez zuten, artean, XIX. mende hartan gerora ezagutu zen distira intelektualik, baina duintasunez eskainitako irakaskuntza

ezagutu zuen han senperetar gazteak. 1856an apaiztu zen Baionan.

Bastres-en izaeran zegoen sen oneko izaitea, zentzuzko erdiko bideak urratzea, muturreko teoria eta iritziak saihestuz bizitzan eta espiritualitatean zuhertasunez jokatzeko, neurritz ibiltzea. Burulana baino bizilana maiteago zuen, betiere lagunartean eramana. Horregatik, Belokeko sorreran lagunarte bat dago, elizbarrutitik eta beneditarretatik zetorrena.

Apaizturik, ondoko urteetan esperientzia ezberdinak ezagutu zituen apaiz gazteak: Ezpeletako bikario/laguntzaile izan zen (1856), Larresoron irakasle eman zituen urte batzuk (1859) eta Hazparneko misionisten taldean sartu zen (1865-1872). 1870eko gerra lehertzean, Euskal Herriko soldaduekin joan zen frontera, kapilau gisa.

Erlijioso izan nahirik, bide baten bila ibili zen urtetan, jesulagunekin, kaputxinoekin eta beneditarrekin harremanetan zela, azken erabakia hartu zuen arte (1872).

Belokeko Monasterio berria.

Belokeko Monasterioa Baionako Diozesiaren altzoan jaio zen, beneditarren erbesteko mugimenduetatik baino gehiago. Horrela, J.-P. Arbel-



bide, apaiz idazlea eta misiolaria, bete-betea ibili zen Belokeko asmoa laguntzen.

Monasterio hau sortzeko lehen pausua Hazparneko Misionista diozesitarrek eman zuten, eta 1865-1872etan han bildutako apaiz euskaldunen ekimenez eman ziren fundazio berri-rako urratsak.

Horrela, berori sortzeko bost lagun prestatu ziren, La Pierre-qui-Vire zeritzan Frantziako Morvan eskualdeko beneditarretan. Hara joan ziren Hazparnetik, eta han bete zuten nobiziodiko prestakuntza erlijiosoa (1872-1875), harik eta Beloken beren egoitza hautatu eta bertan bizitzen jarri ziren arte. 1875eko irailaren 1ean ireki zen monasterioa. 1880an bederatzikoa monje izango ziren, eta etorkizuna segurtasun hobez begiratu ahal izan zuten; horien artekoa zen Aita Basile Joanategi isturiztarra, euskal idazlea, 1921ean Lazkaon hilko zena, eta Orixek hain maitea zuen Joanategi.

1880an, gainerako Kongregazioetan bezala, Beloken ere monasterioa lege berrien arabera, itxiarazi egin zen, baina poliziak eta suprefetak egoera hori hertsiki zaindu gabe; beste hogeitau urte hala bizi izan ziren beneditarrek Beloken. Bien bitartean, monasterioak Larresoroko Seminarioa eraman zituen bere beneditar-gaiak, eskolatzera.

Belokeko monasterioak Prioretxe izatea lortu zuen laster, eta Nobiziategia ireki zuen 1884an: Nobizio-Maisu euskalduna behar zela eta, Joanategi aukeratu zuten. Bost urte geroago, 1889an, Erromak Abatetxe edo Abadia izendatu zuen Beloke.

Otoitza, eskulana, herrietako misioak: dena batera eta txandaka, izango dira lan nagusiak, monjeei jaten emateko, izpiritua zaintzeko, herriarekin bizitzeko. Hau dena ez zen gizonetzkoetara mugatu, baizik eta moja beneditarrek ere beren Etxea izan dute Beloken (1883).

Monje-monasterio hau ez da egon sekula mundu zabalera itxita; alderantziz, besteak beste Amerikako Estatu Batuetan (1884), Argentinan (1899) edo Palestinan (1901) lagundu dute beloketarrek, monasterio berriak sortzen eta misio-lanetan.

XX. mendeko lehen urteak latzak gertatu ziren Iparraldean eta Beloken, Frantziako III. Errepublikaren legeek gupidarik gabe itxi baitzituzten komentu eta monasterioak. Hegoaldera etorri behar izan zuten erlijioso beneditarrek (1903), lehen egoitza Idiazabal-en jarriz eta, azkenik, gaur egun Lazkaon dagoen monasteriora bilduz. Hor daude gaur egun Lazkaon, eta Estibalitzen (hemen, 1963az geroztik).

Azken hamarkadetan, bikaina izan da Beloketik eskainitako eliz kultur lana, eta beneditar hauei zor diegu, neurri handi batez, eliz kanta-tegiari Kontzilio-ondoan eman zaien halako duintasun ederra: gogora ditzagun Aita Lertxundi musikaria eta hil berria dugun Iratzeder olerkaria, biak ere euskal tradizioz finena jaso dutenak. Eta berrikitan Bibliaren lapurterazko itzulpena (Martzel Etxehandi).

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580